

POLONIA, GALTZAILE AMORRATUA

Lehen Mundu Gerrako hondakinenatik birsortu zeneko mendeurrena ospatu berri du Europa Erdialdeko herriak

Manifestazioaren aurrean Andrzej Duda presidente eta Mateusz Morawiecki lehen ministroa zeuden, Prawo i Sprawiedliwość alderdi kontserbadore, katoliko eta eskuindarraren agintariak (PiS, Legea eta Justizia). Atzean, berriz, muturreko poloniar nazionalistak eta faxistak zihoazen, duela bost urte Varsovian Errusiako enbaxadari eraso egin ziotenak. Oraingoan ez zuten liskarrik eragin.

PiSek kaleak eta jai nazionala ultren esku ez zuela utziko argudiatuz deitu zuen manifestazioan parte hartzera. Denaren, ultren ondoan desfilatuz mendebaldean Poloniak duen irudi ankerra baieztatzea baino ez du lortu alderdiak.

Parisen Macron presidente frantsesa eta bere gonbidatuak I. Mundu Gerrari (1914-1918) amaiera eman zion armistizioaren mendeurrena gogoratzeko bildu baziren ere, urtemugak bestelako esanahia du Polonian. Izan ere, duela 100 urte, autodeterminazio eskubidea aldarrikatuz, nazio poloniarrek estatu propioa berreskuratu zuen, 223 urte lehenago Prusiak, Errusiak eta Austria-Hungariako Inperioak suntsitu zutena Erdialdeko Europako herrialdea euren artean partekatzeke.

MILITARRA PRESIDENTE

1918ko azaroaren 11 hartan ordekarri poloniarrek Józef Piłsudski jenerala komandante buru izendatu zuten. Militarra alemaniarrekin eta austriarre-

kin batera aritu zen errusiarren aurka borrokan, estatu poloniar baten aldeko aliatuen apustua ez zela benetakoa ohartu zen arte. Geroago, Poloniako II. Errepublikako presidente izendatu zuten. Eta, azkenean, boterean betikotu zen estatu kolpe baten bitartez. Bistakoa denez, nazio subiranotasunaren heroia ez zen ez demokratarik iaioena.

Askoz iaioagoa zen Piłsudski kontu militarretan, Sobietar Batasun sortu berriaren Armada Gorri iraultzailea Varsovia-ko atarian bertan zela menderatu zuenean erakutsi zuen bezala. Ondoren Ukrainiako mendebaldeko eskualdea konkistatu zuen, 1795. urteko Poloniako mugak berreskuratuz. Polonia berriaren mendebaldean, berriz, Piłsudskiren soldaduek Alemaniako *freikorps* paramilitarrekin egin zuten topo, Posen eta Mendebaldeko Prusiako eskualdeetan aritzen zirenak. Azkenean, Versaillesko Itunaren ondoren armagabeketa, Berlinek amore eman behar izan zuen eta alemaniar eta poloniar populazioek jaio-terri zituzten lurraldeok Gerra Handian garaile izan ziren potentzien babesa zuen Varsoviako Gobernuari eman behar izan zizkion.

Aurrerago, 1934an, Adolf Hitlerren gobernu naziak «elkarri ez erasotzeko» ituna sinatu zuen Piłsudskiren exekutiboarekin, “bakezalea” zela adierazteko. Poloniako agintariak Alemaniarekin harremanak egonkortu nahi zituen, baina, aldi berean, Paris eta Londresen laguntza ere landu zuen, Berlinek eta Moskuk Poloniari “guraizearena egin” ez ziezai-

 POLITIKA / Ingo NIEBEL

Poloniako II. Errepublika eratu zeneko mendeurrena ospatu du aurten historian zehar Alemania eta Errusiak inguratuta bizi izan den herriak. Azaroaren 11ko jai nazionalan 200.000 poloniar atera ziren kalera. Gobernua ultraeskuinarekin atera zen kalera, muturrekoei protagonismoa kentzeko aitzakiarekin.

Jendetza bildu zen Varsovian azaroaren 11n, Poloniako II. Errepublika eratu zeneko mendeurrenaren ospakizunetan.
ANEK SKARZYŃSKI | AFP

ten. Laster ikusiko zuenez, ez zuen helburua lortu.

1939ko abuztuan, Hitlerrek eta Stalinekin Ribentrop-Molotov akordioa sinatu zuten, elkarri ez erasotzeko aginduaren truke berriro ere Polonia zatitu eta bereganatzea hitzartuz. Horrela bada, Hitlerrek Poloniaren inbasioari ekin ahal izan zion irailaren 1ean. Ale-

maniar tropak Stalinekin adostutako marrara iritsi baino lehen, Armada Gorriak bere zatia bereganatu zuen, hau da, 1795tik Piłsudskiren erasora bitarteko Ukrainiaren mendebaldeko lurraldea.

SS INDARREN KOMANDO BEREZIAK

Alemaniko soldaduen atzetik, SS indar armatu nazien komando bereziak zetozen. 60.000 poloniarren izenak biltzen zituen “ikerketa zerrenda berezia” zeramaten esku artean. Heinrich Himmler SS indarren buruak Poloniako inteligentzia ezabatu nahi zuen. Urriaren bukaerarako 20.000 pertsona hil zituzten. Izena ere kendu zioten herrialdeari, “Okupatutako Poloniar Lurraldeen Gobernazio Orokorra” bezala izendatuz. Geroago etsaiak modu industrialean



hiltzeko sistema hobetu zuten, Auschwitzeko sarraski-ze-lai ezaguna eraikiz.

Sobietarrek ere berea egin zuten Polonian 1940tik 1941ra bitartean: 25.000 poloniar ofizial erail zituzten, tartean 4.000 inguru Katyneko sarraskian. 1943. urtean erbeste-ko Gobernu poloniarren bu-ruak, Wladislaw Sikorskik, Gurutze Gorriari Katynen ger-
tatutakoa ikertzeko eskatu zionean, Stalin sutan jarri zen. Hilabete batzuk geroago inoiz argitu gabeko aire istripu ba-tean hil zen Gibraltarren Si-korski. Harremanak are gehia-go gaiztotu ziren Armada Gorriak Varsoviako ghetto-
ko matxinadari eta Poloniako Ar-madari laguntza ukatzean. Ondorioz naziek hiriburua guztiz suntsitu eta 200.000 poloniar erail zituzten.

II. Munduko Gerran, ez dira batere ezagunak poloniarren ekintza gogoangarriak. Baina izan ziren. Adibidez, Marian Rejeskiren eta beste hainbat poloniar matematikoren lana ezinbestekoa suertatu zitzaie britainiarrei alemaniarren ko-de-sistema, Enigma izenekoa, deszifratzeko.

Nazismoa garaituta, Polo-niako Errepublika Popularra

**Muturreko katolikoak biltzen dituen
gubernuko alderdia eta ultraeskuina batera
atera dira kalera Poloniako II. Errepublika
sortu zeneko mendeurrena aldarrikatzeko**

**Herrialdearen historiaren gordintasuna
agerian uzten du bere himnoan jasotako leloak:
«Oraingoz ez da galdu Polonia». Egun ere ez du
egoera batere samurra bizi herrialdeak**

jaio zen, sobietar Anai Handia-ren agindupean. Sobietar Bata-suna Ukrainiako mendebalde-ko lurraldeekin geratu zen, baina, trukean, Oder-Neisse le-
rrorainoko lurralde alemanak eta Prusia Ekialdeko hegoal-dea eskaini zion Varsoviari.

KOMUNISMOAREN PORROTA

80ko hamarkadan, Solidar-nosc langile mugimendua ko-munismoaren aurkako indar nagusi bilakatu zen, eta, Juan Pablo II.a orduko aita santua-rekin batera, Varsoviako Itune-ko herrialdeko alderdi komu-nista guztiak suntsitzea lortu zuten, domino-fitxak bailiren. Alderdien arteko hauteskun-deen ostean, eta, konstituzio berriaren haritik, *Rzeczpospo-lita Polska* jaio zen.

Garai hartakoa da ere he-rrialdeko himnoa, honela has-

ten dena: «Oraingoz ez da gal-dua Polonia...». Hau da, mo-menturik zailenetan itxaro-pe-na mantentzeko deia eta leloa. Izan ere, Poloniaren egoera ez da batere samurra gaur egun ere. Mendebaldetik Europako Batasunak gogor kritikatzeko ditu prentsa askatasunaren eta botere judizialaren aurka-ko Varsoviako Gobernuaren erasoak. Ekialdetik, Ukrainia-ko krisiak eta Moskuren inte-resek pil-pilean mantentzen dute Poloniaren beldurra. Bel-durra eta paranoia, 2010ean Katynera bidean aire istripuz hil zen Lech Kaczynski presi-dentea zenaren inguruan sor-tutako konspirazio zurrumu-rruek agerian utzi bezala. Egun, bere biki Jaroslawek gi-datzen du PiS alderdia, eta Do-nald Trump AEBetako presi-dentea du babesle berritzat...

ALEMANIAREN ETA ERRUSIAREN TARTEAN BETI ETA BETIRAKO

Poloniarentzat agertoki txarrena Berlinen eta Moskuren artean harremanak hobetzea litzateke, esate baterako, Krimearen anexoagatik Europako Batasunak Errusiari jarri zizkion zigorrak atzera botatzea. Horrela bada, Varsoviak ez du begi onez ikusten North Stream II gasbidea, Errusia eta Alemania Itsaso Baltikoan barna batzen dituen, Polonia eta Ukraina alde batera utzita. Izan ere, Varsoviak 1991n geostrategikoki lortutako pisua galtzen du. Urte hartan, Parisekin eta Berlinekin batera, Weimarreko Triangelua sortu zuen, geopolitikan Polonia Europako bi potentzien ondoan jarritz. 2016an, PiSen Gobernuak AEBen base militarrek eta misil sistemak jarri zituen Polonian, Vladimir Putin presidente errusiarraren kanpo politikari desafio eginez. Donald Trump Etxe Zurira iritsi denetik, Varsoviak AEBekin lotura are gehiago sendotu nahi du. Washington, gainera, jeloskor da Emmanuel Macron

presidente frantziarrak eta Angela Merkel kanzelari alemanak «benetako Armada europarra» sortzeko azaldutako planen aurrean. Beraz, PiS alderdiak herrialdearen gertuko aliatuak izan zitezkeenetatik are gehiago urruntzeko tentazioa izango du. Egun, Berlinen eta Varsoviaren arteko harremanak gaiztotu egin dira. Poloniaren noraez autoritarioak, Merkelek errefuxiatuak hartu izanagatik egindako kritikek eta PiSen euromesfidantzak ez dizkiete harremanoi mesederik egiten. Gainera, II. Mundu Gerran Alemaniak Polonian eragindako kalteengandik ordain handiak exijitzen dizkio Poloniak Berlini. Izan ere, Alemaniak ez zion gudari amaiera bake itun baten bidez eman eta banakako akordioak sinatu zituen. Azkenik, aipatu Alemaniako elite politiko eta mediatikoa zur eta lur gelditu zela PiSek udal hauteskundeak irabazi zituenean joan den urrian. Orain 2019ko hauteskundeetan aise galtzea espero du. Itxaropena ala desioa?



Manifestari bat, garaiko jantzi militarra soinean. JANEK SKARZYNSKI | AFP